

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloek 2 ikasturtetan zehar garatzen dira. Ziklo osoaren iraupena 2.000 ikastordukoa da.

Oinarrizko Lanbide Heziketa zikloetan sartzeko baldintzak:

1) Sartzeko lehentasuna izango dute aldi berean baldintza hauek betetzen dutenek:

- a) Hamabost urte beteak izatea, edo dagokion urte naturalaren barruan betetzea, eta hamazazpi urte baino gehiago ez izatea zikloan sartzean edo dagokion urte naturalean.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren kurtsoa edo, salbuespen gisa, DBH-ko bigarren kurtsoa eginda izatea.
- c) Irakasleek familiei edo legezko tutoreei proposatzea interesdunak Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo bat has dezan.

2) Era berean, eskabidea egiteko aukera izango dute:

- 17 urtetik gorakoek, DBH-ko 3. edo 4. kurtsoa eginda dutenek, eta salbuespenez DBH-KO 2. maila eginda daukatenek.
- 17 urtetik gorakoek, baldin eta Lanbide Heziketako titulaturik ez badaukate edo bigarren hezkuntzako ikasketak bukatu barik badaukate.

Ikasleek Oinarrizko Lanbide Heziketako titulua lortutakoan, zuzenean joan daitezke Erdi Mailako zikloa egitera edo bestela laneko mundura sartzera.

Hona hemen 2019-2020 ikasturtean eskainiko diren Oinarrizko Lanbide Heziketako Zikloak:

- ◆ Sukaldaritza eta Jatetxe-arloa
- ◆ Metalezko Elementuen Fabrikazioa (Soldadura, Arotzeria Metalikoa eta Elektronika...)

Informazio osagarria:

Matrikulaziorako arduraduna: Maite Ibarluzea (Ikastegiko zuzendaria)
Orduetgia: 9:00 - 14:00
Helbidea: Atalde kalea, 8 - 48370 Bermeo
Telefona: 94 617 91 75
E-mail: olhzuzendaria@bermeo.eus